

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Enpresa honen funtsezko baliabide nagusiak, enpresa honen sustatzaileak gara. Disziplina ezberdinetan esperientzia handiko pertsonak, balio erantsi handiko zerbitzuak eskaini ditzakegunak. Hona hemen gure perfilak:

- Psikologo bat, pertsona nagusietan espezializatua.
- Enpresa munduan giza baliabideen alorrean lan egi duena (talde lana sustatzen, pertsonen garapen profesionala bultzatzen...).
- Animatzaile soziokulturala (bezeroen gustuen araberako ekintzak antolatzeko gaitasuna duena).
- Gestioan aditua den pertsona bat.

Ekintzaileen ezagutza espezializatuak aprobetxatuz, ikastaro bereziak eskainiko ditugu. Pertsona nagusiei ezezik, publiko osoari zuzenduak egongo dira. Diru sarrera osagarriak izango dira enpresa proiektua bideragarri egin ahal izateko.

Honetaz aparte, oso garrantzitsuak izango dira enpresak izango dituen aliatuak (kirolaretik, kulturarekin, bidaiekin, eskulanak eta artearekin... lotuta).

Eta baliabide fisikoei dagokienez lokala egun osoan zehar zabaldua egongo da, bezeroekin harremana mantentzeko, ekintza ezberdinak garatzeko eta hauek informatuta izateko. Behin lokalean, mota ezberdinetako baliabideak izando dituzte denbora pasatzeko:

- Kartak
- Telebista
- Ordenagailuak
- Eskulanak egiteko materiala
- Liburuak
- Petanka
- Jarrileku eta mahi erosoak
- Kafeleku txiki bat (elkarrizketak mantentzeko leku aproposa izango dena)



Bestalde, kanpo ekintzarako, garraio elementuak enpresak jarriko ditu, eta horrela ez dira arduratu behar izango garraioaz.

Hain garrantzitsua ikusten dugun informatikarekin bat eginez, aplikazio teknologiko ezberdinak garatuko dira bezeroek euren zerbitzuak jaso ahal izateko (online irakurri, ikus entzuneko bideak aztertu, beste elkarteetako pertsona batzuekin online interaktuatu, taldeka online jolastu...) eta honela euren gaitasun digitalak hobetzeko.



Aipatzekoa da ere gure enpresa sare bateko kide izango dela, Euskal Herrian filosofia beraz lan egingo duten beste 4 enpresarekin batera. Hau enpresarentzako abataila bat izango da:

- Kostek murriztu ditzakegu elkarrekin antolatuz
- Komunitatea handituko da, enpresa guztietako bezeroak komunitatea bakarrean bilduz.
- Enpresa bakoitzeko bezeroak harremantzeko, teknologia berriak erabiliko dira neurri handi batean, honela pertsonen gaitasun digitalak hobetuz.